



Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

ERANTZUNAK OHIKO GALDEREI

Prebentzio-neurri espezifikoak koronabirusaren aurrean

2022eko urtarrilaren 5an eguneratutako dokumentua

Aurkezpena

Dokumentu honek, ohiko galderei ematen dien erantzunen bidez, honako agindu hauen edukia hobeto ulertzen eta interpretatzen laguntzea du helburu:

- AGINDUA, 2021eko urriaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa.
- AGINDUA, 2021eko azaroaren 16koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez 2021eko urriaren 6ko Aginduan jasotako neurriak ezartzen eta modulatzeko baitira COVID-19 kutsatzeetan 14 eguneko tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gorakoa den udalerrietan -2021eko urriaren 6ko Agindua, lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa-.
- Osasuneko sailburuarena, Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitalaren (QR) derrigortasuna ezartzen duena, 2021eko urriaren 6ko Aginduan ezarritako neurrien osagarri gisa. Lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa da agindu hori.
- 47/2021 DEKRETUA, abenduaren 14koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez xedatzen baita establezimendu, ekitaldi, jarduera eta leku gehiagotara zabaltzea Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren bidez ezarritako Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeko derrigortasuna.
- 51/2021 DEKRETUA, abenduaren 28koa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak zehazten baitira, osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioaren esparruan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Dokumentu hau interpretatzailea baino ez da, eta ez du inola ere ordeztzen dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako dekretuaren edukia.

Herritarren zalantzak, orain arte egin den bezala, ZUZENEAN herritarrentzako zerbitzuaren bidez bideratuko dira:

<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/zuzenean-atencion-ciudadana/>

PREBENTZIO-NEURRI ESPEZIFIKOEI BURUZ

Informazio orokorra

Zergatik jotzen dira beharrezkotzat Covida prebenitzeko neurri espezifikoak?

EAEko egungo egoera pandemikoak erakusten du kutsatze kopuruak oso azkar gora egin duela, eta horrek laguntza-zerbitzuak tenkatzea eragiten du. 2021eko abenduaren 26an, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 14 egunetan metatutako eragin-tasa 2.076,68 kasukoa izan zen 100.000 biztanleko; ugaltze-indizea (Rt) 1,49koa; 381 pertsona plantan eta 110 pertsona ZIU; halaber, 30 pertsona hil dira Covidaren ondorioz azken astean. Hori guztia kontuan izanda, komeni da ekainaren 24ko 2/2021 Legean, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoan, jasotako prebentzio-neurri berriak hartzea.

Zer neurri espezifiko zehaztu dira?

1. 2022ko urtarrilaren 28ra arte, beranduenera 01:00ean itxiko dira merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztiak, bai eta ostalaritza- eta jatetxe-establezimendu eta antzekoak ere. Beren jarduerarako arauz ezarritakoaren arabera lehenago itxi behar duten establezimenduak eta tokiak dagokien araudian ezarritako orduan itxiko dira.

Lurralde historikoak baino eremu txikiagoko garraio publikoei abiatzeko azken ordu hau ezarriko zaie: 02:00.

2. Oro har, 2022ko urtarrilaren 28ra arte, % 60ko edukiera-muga ezartzen da mota guztietako establezimendu eta barrualdeko esparruetan.
3. Gainera, ekitaldien esparruan, aldi bererako honako edukiera-muga hauek ezartzen dira:
 - Gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldietarako esparruetan, gehienez ere 600 pertsona bildu ahal izango dira barrualdean, eta 800 kanpoaldean.
 - 1.600 eta 5.000 pertsona arteko edukiera duten esparruetan, gehieneko kopurua 800 pertsonakoa da barrualdean, eta 1.200 pertsonakoa kanpoaldean.
 - 5.000 pertsonatik gorako edukiera duten esparruetan, gehieneko aforoa % 50ekoa izango da; horrek ezertan galarazi gabe estatu osorako ezarritako beste muga bat aplikatu behar izatea.
4. Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduetan, diskoteketan eta gaueko aisialdiko gainerako establezimenduetan, debekatu egiten da zutik kontsumitzea, eta mahai bakoitzeko edo mahai-multzo bakoitzeko bezero-taldeak gehienez ere 10 lagunera

mugatzen dira, bai barrualdean bai terrazetan. Era berean, mahaien edo mahai-multzoen arteko distantzia gutxienez 1,5 metrokoa izango da.

Ostalaritza-establezimenduei aplikatzen zaien araubide bera aplikatuko zaie txokoei, gazte-lokalei edo elkarte gastronomikoei.

5. Aldi bererako, hau zehazten da: barruko instalazioetako kirol-jarduera 10 pertsona arteko taldeetan egituratu beharko da; aldagelen erabilera % 50eko okupaziora mugatuko da; eta dutxak banaka erabiliko dira, edo pertsonen artean bi metroko distantzia gorde beharko da.
6. 2022ko urtarrilaren 1ean eta 6an, merkataritza-establezimendu guztiak eta ostalaritza- eta jatetxe-establezimendu eta -zerbitzu guztiak ezin izango dira 08:00ak baino lehen ireki jendearentzat.

Muga horretatik salbuetsita daude gasolindegia, zerbitzuguneak eta farmaziak, bai eta hoteletako eta bestelako ostatuetako gosari-zerbitzua ere.

Aurreko guztiak nahitaez bete behar al dira?

Bai. Gainera, herritarrei gomendatzen zaie 2021eko abenduaren 31tik 2022ko urtarrilaren 1era bitartean eta 2022ko urtarrilaren 5etik 6ra bitartean Gabonetako bazkariak eta afariak egiteko familia-topaketak hamar pertsonako kopurua gainditu gabe egitea eta gehienez bi familia-unitate biltzea.

Era berean, gomendagarria da ospakizunetan familia-unitateen osaera ez aldatzea, eta, nolana ere, arreta eta kontu berezia izatea Covid-19arekiko kalteberatasun-egoeran dauden pertsonekin.

Noiz aplikatuko dira neurri berriak?

Neurri berriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren unetik aurrera aplikatuko dira; hau da, 2021eko abenduaren 29ko 00:00etatik aurrera.

Noiz arte aplikatuko dira neurri berriak?

Dekretuan aurreikusitako neurriak 2022ko urtarrilaren 28ra arte aplikatuko dira. Egoera epidemiologikoaren jarraipena eta ebaluazioa egingo da, eta neurri horiek luzatu, aldatu edo ondoriorik gabe utzi ahal izango dira.

Prebentzio-neurri espezifikoak – araua betetzea

Nork ziurtatu behar du ordutegiari eta edukierari buruzko neurriak betetzen direla?

Lokalaren, establezimenduaren, jardueraren edo ekitaldiaren arduradunak, edo, halakorik ezean, bertako arduradunak edo langileek ziurtatu beharko dute osasun-araudi espezifikoa betetzen dela: aforoa, ordutegia, eserita kontsumitzea, etab.

Ikusteko moduko lekuan ipini beharko dute establezimenduaren aforoa, eta baliabide fisikoak eta/edo giza baliabideak jarri beharko dituzte, Dekretuak adierazten duen aforomuga errespetatzeko.

Udaltzaingoak/Ertzaintzak ikuskapenak egingo dizkie establezimendu edo ekitaldi horiei agindua betetzen ari diren jakiteko?

Udaltzaingoak edo Ertzaintzak ikuskapenak egin ahal izango dizkie establezimendu horiei, agindu hori betetzen dela egiaztatzeko.

Zein da araudia ez betetzeagatik aurreikusitako zehapena? Nori dagokio?

Hemen ezarritako zehapenak jarriko dira: COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzioko, eusteko eta koordinazioko premiazko neurriei buruzko martxoaren 29ko 2/2021 Legearen VII. kapituluaren 4ko 33/2011 Lege Orokorraren VI. tituluaren eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 35. artikulutik 39.era bitartekoetan, baita COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen VI. Tituluaren.

Establezimenduaren, ekitaldiaren edo jardueraren titularra edo erakundea izango da arduraduna.

Neurri berriak aplikatzea

Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztiak 1:00etan ixteak barne hartzen al ditu tabernak eta gaueko lokalak ere?

Bai.

Lehenago itxi behar duen establezimendu bat (kafetegia edo taberna) baldin badaukat, irekitzeko ordutegia 1:00ak arte luza dezaket?

Ez, beren jarduerarako ixteko ordu orokorra lehenagokoa duten establezimenduek eta tokiek beren araudian ezarritako orduan ixten jarraituko dute.

Jatetxean dena erreserbatuta daukat. Zer egin behar dut erreserbekin, aforoa eta mahaien arteko distantzia murrizten bada?

Neurria betetzen dela ziurtatu beharko da, erreserba kopurua murriztuta, baimendutako gehieneko aforora iritsi arte.

Afaria antolatu dugu txokoan. Neurriek guri ere eragiten al digute?

Bai, ostalaritza-establezimenduei aplikatzen zaien araubide bera aplikatzen zaie txokoei, gazte-lonjei edo elkarte gastronomikoei. Hau da, 1:00etan ixtea eta gehienez % 60ko aforoa izatea. Gehienez ere 10 jankide mahaiko eta 1,5 metroko distantzia mahaien artean.

Euskal Autonomia Erkidegora datorren bidaiari bat naiz, eta bertan behera utzi didate ostatuko erreserba, aforoa dela eta. Zer egin behar dut?

Euskal Autonomia Erkidegora datorren bidaiari gisa, erreserba bertan behera utzi baduzu eta helmugari eutsi nahi badiozu, beste erreserba bat izan beharko duzu.

10 jokalaritik gorako taldeen entrenamenduak bertan behera utzi behar dira?

Ez, gehienez 10 jokalariko talde egonkorak antolatu beharko dira prebentzio-neurri berriak aplikatzen amaitu arte. Era berean, aldagelak edo dutxak erabiltzen badituzte, sarrera eta irteera eskalatu beharko dira, behar izanez gero, okupazioaren % 50etik gorakoa ez izateko eta dutxak banaka erabiltzen direla edo pertsonen artean bi metroko distantzia mantentzen dela ziurtatzeko.

Barneko kirol federatuen kasuan (saskibaloia, eskubaloia edo beste batzuk), 10 pertsonako mugak lehiaketa horiei ere eragiten die?

Kirol federatuari ez dio eragiten 51/2021 DEKRETUAK, abenduaren 28koa, lehendakariarena, eranskina, 5. puntua.

Hizkuntza-akademien kasuan, % 60ko edukiera-muga ere aplikatuko al litzateke ikasleen sarrera eta irteera mailakatuta egiten bada, maskara erabiltzen bada eta egonaldiak aireztatzen badira?

Hizkuntza-akademiak, arautuak izan edo ez, hezkuntza-testuinguruan kokatu eta asimilatu behar dira maila guztietan (unibertsitatean eta unibertsitatez kanpo), eta, beraz, % 60ko edukiera-mugaren aplikazio orokorretik kanpo geratzen dira. Hezkuntza-esparruak prebentzio-neurrien protokolo propioa du.

EBko COVID ZIURTAGIRI DIGITALARI BURUZ

Zer da EBko COVID Ziurtagiri Digitala?

EBko COVID Ziurtagiri Digitala QR irakurketa duen dokumentu bat da, Europar Batasunaren barruan herritarren zirkulazio segurua errazten duena COVID-19aren pandemiaren garaian.

Dokumentu hori Europar Batasunaren barruan bidaiatzea errazteko ezarri zen. Ziurtagiri hori duen bidaiariari kontrolak arinduko zaizkio, eta ez duenari, berriz, herrialde bakoitzeko agintariek ezarritako bestelako kontrolak egingo zaizkio eta dagokion informazioa aurkeztu beharko du.

Gainera, abenduaren 4az geroztik, gaitu egin da Euskadi COVID Ziurtagiri Digitala eskatzeko, nahitaezkoa izan dadin gaueko aisiako establezimenduetan eta jatetxeetan sartzeko.

Zer ziurtagiri-mota daude?

Hiru ziurtagiri-mota daude, eta hiru pertsona-motari zuzenduta daude:

1. Txertaketa-ziurtagiria
Dosi 1 edo 2rekin txertatutako pertsoneri
Oharra: atzerrian dosi bakarrarekin edo bi dosirekin txertatuak beren osasun-zentroan erregistratu beharko dira aurretik, txertatuta daudela ziurtatzen duen agiriarekin.
2. Errekuperazio-ziurtagiria
Gaixotasuna pasatu dutenak 11-180 egunetako tartean PCR positiboa izan ondoren.
3. Proba negatiboaren ziurtagiria
Diagnostiko-proba negatiboa dutenak 48 ordu lehenago antigeno-proban eta 72 ordu lehenago PCR proban.

ZIURTAGIRIA LORTZEKO

Nola lortu ziurtagiria?

EBko COVID Ziurtagiri Digitala bi modutara lor daiteke, modu digitalean edo presentzian.

Informazio zehatza esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/certificado-covid-digital-ue/web01-a3korona/es/>

Zer iraunaldi dute ziurtagiri horiek?

- Txertaketa-ziurtagiria: Urte bat, azken dosiaren datatik hasita
- Errekuperazio-ziurtagiria: 6 hilabete
- Diagnostiko-proba negatiboaren ziurtagiria:
- Antigeno-probarekin (TAR): 48 ordu
- PCR probarekin: 72 ordu

Txertoa kontraindikaturik daukat; beraz, ezin dut Covid-aren txertaketa-ziurtagiria eskuratu. Nola sar naiteke lokal horietan?

Bi aukera daude establezimendu horietan dokumentazioa aurkezteko:

Covid-19aren proba negatiboaren ziurtagiria: PCR bat edo antigenoen testa egin duzuela eta emaitza negatiboa izan dela egiaztatzen duen agiria da. Hartan, proba zer egunetan eta ordutan egin duzun, proba zer zentrotan egin duzun eta emaitza agertuko dira.

Errekuperazio-ziurtagiria: ziurtagiri horrek Covid-a pasatu duzula egiaztatzen du. Hartan, Covid-en emaitza positiboa zer egunetan izan zenuen ageri da, kontuan hartuta orduan zeundela kutsatuta, bai eta birusa gainditu duzula egiaztatzen duen ziurtagiriaren igorlea eta datak ere.

Pertsona batek Jansenen dosi bakarra badu eta bigarren dosia Covid-a izan duelako jarri ez duela justifikatzen badu, sartzea debekatu behar zaio?

Ez, pertsona horrek dagoeneko badu Europar Batasunaren Covid Ziurtagiri Digitala (QR).

12 urte bete berri ditut eta oraindik ez dut txertoa jaso. Beharrezkoa al da Covid ziurtagiria?

Haurren txertoa jaso ez duten 12 urtetik beherakoek COVID ziurtagiria aurkezteko eskakizunaren salbuespena 3 hilabetez luzatuko zaie hamabigarren urtebetetze-egunetik, helduen txertoa eman arte behar duten denbora gaitzeko.

EBko COVID Ziurtagiri Digitalaren eskakizuna EAEn

Non exijituko da Covid Ziurtagiria Euskadin?

Osasuneko Sailburuaren azaroaren 17ko Aginduaren eta Lehendakariaren abenduaren 14ko Dekretuaren arabera, Covid Ziurtagiri Digitala honako kasu hauetan exiji daiteke:

- 1) Publikoari aisia- eta dantza-jarduerak eskaintzeko establezimenduetan, bestiek beste, kontzertu-areto, erabilera anitzeko areto, diskoteka, dantza-areto, ikuskizunak ematen dituzten jai-areto, musika-taberna, karaoke eta otsailaren

5eko 17/2019 Dekretuaren arabera III. eta IV. taldeetan sartzen diren guztietan

- 2) Ostalaritza-establezimendu eta jatetxeetan, oturuntza-aretoak barne, dantza egiteko aukera ematen duten jarduerak egiten direnean, bertaratuen kopurua zeinahi dela ere.
- 3) Kiroldegi, gimnasio eta jarduera fisikoa eta/edo kirola egiteko bestelako barne-espazioetan, izan kirolarientzat, laguntzaileentzat nahiz publikoarentzat.
- 4) Kirol-instalazio itxietan, hala nola estadio, frontoi eta antzekoetan, sarrera kontrolatzeko sistema batekin (tiketak, abonamenduak, gonbidapenak eta antzekoak) eta 100 pertsona baino gehiago bertaratuta lehiaketak egiten direnean.
- 5) Eta ospitale eta zentro soziosanitarioetan, bai eta espetxeetan ere: ospitaleratutako pazienteak edo egoiliarak bisitatzen dituzten pertsonak.

*Lehendakariaren Dekretuan ageri diren espazioetan, EAEn intzidentzia-tasa metatua 14 egunean 100.000 biztanleko 300 kasukoa edo gehiagokoa den bitartean, aipatutako establezimendu, ekitaldi, jarduera eta lekuetan sartzeko eta barruan egoteko, establezimenduko arduradunek kontrolatu beharko dute erabiltzaileak Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) duela, paperean edo euskarri digitalean.

*Eskakizun hori ez da beharrezkoa izango 12 urtetik beherakoak sailkapenaren arabera sarbidea mugatuta ez duten establezimendu, ekitaldi, jarduera eta lekuetan sartzeko. Bestalde, ez zaie exijituko lokal horietako langileei, lokal horietara lan egitera sartzen direnean.

Nork exijitu beharko du ziurtagiria?

Establezimenduetako titularrak, bai zuzenean bai bere enplegatuen bidez. Agintaritzako agenteek ere exijitu ahalko dute.

Badago Covid Ziurtagiria erakusteko beharrari buruz establezimenduen sarreran jartzeko kartel ofizialik?

Bai, hemen deskarga daitezke:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/certificado_digital_covid/es_def/adjuntos/cartel-COVID-ziurtagiria.pdf

Nola eta noiz erakutsi behar da ziurtagiria?

Establezimendura sartzean zein barruan gauden edozein unetan, baldin eta establezimenduko titularrek, haien enplegatuek edo agintaritzako agenteek (Ertzaintza edo Udaltzaingoa) eskatzen badute.

Nola aurkezten dute herritarrek?

Zenbait aukera daude: PDF formatuko dokumentu digitala, terminal mugikor batean edo beste gailu batean kokatutako QR kode batekin, edo paperean, beharrezkoa izanez gero.

EAEn aldi baterako dauden eta, beraz, Covid Ziurtagiria ez duten Erkidegoz kanpoko herrialdeetako herritarrak azaroaren 17ko Aginduan eta abenduaren 14ko Dekretuan jasotzen diren espazioetan sar daitezke?

Pertsona horiek, dekretuak arautzen dituen eremuetara sartzeko, txertaketa-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, pasaportearekin edo haien identitatea egiaztatzen duen Erkidegoz kanpoko herrialdeko egoitza-txartelarekin batera.

Beharrezkoa da NANA edo identifikazio-ziurtagiri ofiziala aurkeztea Covid ziurtagiriarekin batera?

Bai

Eusko Jaurlaritzak emango du Ziurtagiri Digitalaren QR kodea irakurtzeko aplikazioen bat?

Ez. Zenbait aplikazio daude martxan Europako zenbait herrialdetan eta haiek baliagarriak izan litezke. Aplikazio horiek une oro bete beharko dute Estatuan eta Europan datuak babesteko arloan dagoen legeria.

Dekretuaren arabera, Covid ziurtagiria exijitu beharko da ostalaritzan. Baita terraza edo ostalaritzako espazio irekietan ere?

Ez; izan ere, eskakizuna leku itxietara mugatzen da.

Abenduaren 14ko 47/2021 Dekretuak ezartzen du nahitaezkoa dela Covid ziurtagiria eskatzea ostalaritzako establezimenduetan, haietan lan egiten dutenen kasuan izan ezik. Establezimendu horietako hornitzaileek ziurtagiria aurkeztu behar dute edo langiletzat jotzen dira?

Ez, ostalaritzako establezimendu batera beren lana betetzera doazen hornitzaileek ez dute Covid ziurtagiria aurkeztu behar izango lan egiteko.

Negozi konbinatuen kasuan –esaterako, okindegi-kafetegiak–, Covid ziurtagiria eskatu behar da?

Covid ziurtagiria exijituko da establezimenduan kontsumituko bada, ez produkturen bat erosteko edo eramateko jatekoa edo edatekoa erosteko kasuan.

Jatetxe-zerbitzurik ez duten eta zerbitzua ostatu hartzen dutenei soilik ematen dieten ostatuek (adibidez, gosari-zerbitzua nekazaritza-turismoko establezimendu batean) Covid Ziurtagiria eskatu behar dute?

Ez, uler daiteke nekazaritza-turismoko establezimendu bat hotel-establezimendu baten parekoa dela, nolabait, eta, beraz, ez litzateke beharrezkoa izango Europar Batasunaren Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzea.

Covid ziurtagiria eskatu beharko da merkataritza-zentroetan?

Egungo araudiak ez du halakorik aurreikusten.

Ostalaritza-gune komunak dituzten merkataritza-zentroetan, nork eskatu behar du Covid ziurtagiria?

Ziurtagiria kontsumitzeko aukera ematen duen establezimendu bakoitzak eskatuko du, dastatzeko guneak komunak izan ala ez. Ostalaritzako establezimenduak eskatuko du, gainerako ostalaritzako lokalen baldintza beretan.

Txoko eta sozietate gastronomikoen kasuan eta laneko jantokien kasuan, Covid ziurtagiria aurkeztea nahitaezkoa izango da?

Dekretuak ez du halakorik aurreikusten eta, beraz, ezin da exijitu.

Joko-lokaletan ere Covid ziurtagiria eskatu behar da (besteak beste, kasinoak, bingoak eta joko-aretoak)?

Bai.

Zinema, museo edo antzokietan ere exijitu behar da?

Bai. Dekretuak dakarrenez, honako hauetan exijitu beharko da: kontzertu-areto eta erabilera anitzeko aretoetan edo gaitutako espazio itxietan, kontzertuak, musika-jaialdiak eta beste kultura- eta arte-ekitaldi batzuk egiten direnean.

Zinemak, antzokiak eta museoak kultura-gertakarien leku izaten diren espazio itxiak dira. Horrenbestez, espazio horietan bai exijitu beharko da. Sareko antzokiak ere sartzan dira, hala nola bertso-saio bat, kontzertu bat edo ume edo helduentzako antzezlan bat.

Zer egin behar da Covid Ziurtagiria aplikatu aurretik eginiko sarreren aurretiazko salmentaren kasuan?

Sarrerak aurretiazko salmentaren bidez erosi dituztenek Covid Ziurtagiria aurkeztu ahalko dute ikuskizunaren unean. Ziurtagirietako edozein aurkeztu ahalko dute: txertaketa-ziurtagiria, errekupeazio-ziurtagiria edo proba negatiboaren ziurtagiria (48 ordu lehenago antigenoen proban eta 72 ordu lehenago PCR proban).

Nahitaezkoa izango da Covid ziurtagiria elizetan edo gurtza-lekuetan?

Ez da nahitaezkoa izango elizetan eta gurtza-lekuetan erlijiozko jardukizunetan daudenean. Leku itxi horietan araudian ezartzen den jardueraren bat egiten bada, orduan bai.

Covid ziurtagiria beharko da zentro zibiko edo liburutegietan?

Bai, kulturele espazioak diren heinean. Ez zaie eskatu beharko liburutegietara liburua hartzera joaten direnei, ezta liburutegia bera lan-eremutat dutenei ere (adibidez, ikertzaileak).

Covid ziurtagiria beharko da lanbide-ekitaldietan edo ekitaldien entseguetan?

Jendearentzat zabalik dagoen jarduera bada soilik. Ez da beharrezkoa izango hura prestatzeko, esaterako entseguetarako; izan ere, une horretan aretoan langileak baino ez daudela ulertzen da.

Beharrezkoa izango da Covid ziurtagiria musika-ekimen, kontzertu, musika-jaialdi eta beste kultura- eta arte-gertakari EZ profesionaletarako?

Bai, betiere kontzertu-aretoetan eta erabilera anitzeko aretoetan edo gaitutako beste espazio itxi batzuetan egiten badira.

Kirol-klubek edo beste izaera bateko klubek ekitaldi bat antolatzen badute eta hartan gazteentzako dantza egotea edo galak egitea aurreikusten bada, espazio itxietan eta 300 pertsona arte bertaratuko badira, Covid ziurtagiria exijitu beharko da?

Bai, lokal horien sarreran Covid ziurtagiria aurkezteko exijitu behar da, eta, pedagogia eta erantzukizun sozialagatik, egoera epidemiologikoa eta osasun-egoera kontuan hartuta, mota horretako ekitaldiak atzeratu edo bertan behera utzi beharko lirake.

Dekretuak dakarrenaren arabera, Covid ziurtagiria exijitu beharko da kirol-instalazio itxietan. Baita udal-kiroldegietan ere?

Bai, zabalik ez dauden gunetan bai.

Eskola-kirolean taldearekin entrenatzeko, Covid ziurtagiria behar da?

Entrenamendua 12 urtetik gorakoek egiten badute eta espazio itxian bada, bai.

Irakaskuntza-jarduerak (gorputz-hezkuntza barne) egiteko udal-instalazioak erabiltzen dituzten ikastetxeen kasuan, ikasle eta irakasleei eskatu ahal izango zaie horietan sartzeko Covid ziurtagiria?

COVID ziurtagiria ez zaie eskatuko ikasleei eta irakasleei, baldin eta ikastetxeek udal-instalazioak (kiroldegiak, liburutegia) erabiltzen badituzte eskola-orduetan irakasteko. Jarduera horiek, nahitaez, COVID-19aren aurkako prebentzio-neurrien protokoloaren arabera egin beharko dira EAEko ikastetxeetan 2021/22 ikasturterako.

Beharrezkoa al da kirolariek eta kirol-talde teknikoek entrenamenduetan edo partidetan Covid Ziurtagiria erakustea?

Kirol-erakunde batekin lan-kontratua duten kirolariak, entrenatzaileak eta talde teknikoetako bestelako kideak entrenatzen edo partidak jokatzen ari direnean, lanean dihardutela ulertzen da, edozein dela euren kokapena. Beraz, ez dago pertsona hauei COVID ziurtagiria eskatzeko beharrik kirol-instalazioetara sar daitezen.

Ziurtagiri digitala - araua betetzea

Behin eta berriro eskatuta ere, erabiltzaileak ez du ziurtagiria aurkeztu. Establezimenduko titularrak edo ekitaldiaren antolatzaileak Udaltzaingora/Ertzaintzara deitu behar du?

Establezimenduaren titularrek, hasteko, ziurtagiria aurkezten ez duen pertsonari lokalean sartzea galarazi beharko diote; erabiltzaileak sartzeko debekua betetzen ez badu, jabeak Udaltzaingora/Ertzaintzara deitu ahalko du.

Udaltzaingoak/Ertzaintzak ikuskapenak egingo ditu establezimendu edo ekitaldi horietara, agindua betetzen ari den jakiteko?

Udaltzaingoak edo Ertzaintzak ikuskapenak egin ahalko ditu establezimendu horietara, agindu hori betetzen ari dela egiaztatzeko.

Zer zehapen aurreikusten da araudia ez betetzeagatik? Nor zehatuko da?

Honako hauetan ezarritakoak: martxoaren 29ko 2/2021 Legearen (COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzkoa) VII. kapitulua; Osasun Publikoari buruzko Lege Orokorraren (urriaren 4ko 33/2011 Legea) VI. titulua, eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen (ekainaren 26ko 8/1997 Legea) 35. artikulutik 39. artikulura bitartekoak, bai eta COVID-19aren Pandemia Kudeatzeko Neurriei buruzko Legearen (ekainaren 24ko 2/2021 Legea) VI. titulua ere.

Establezimenduaren, ekitaldiaren, jardueraren edo lekuaren titularra izango da erantzulea, salbu eta, erakusteko eskatu ondoren, eta pertsonak eskaerari kasurik egin

ez diolako, arduradunak bertaratzeko eskatu ondoren bertaratutako agintaritzako agenteek identifikatzen dutenean.

Pertsona batek ziurtagiri faltsua edo eduki faltsuduna aurkeztu badu, zer isun jarriko zaio?

Pertsona hori osasun publikoaren aurkako delitua eta/edo agiri-faltsutasunagatiko delitua egiten ariko da. Honako hauetan ezarritakoari jarraikiz: martxoaren 29ko 2/2021 Legearen (COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzkoa) VII. kapitulua; Osasun Publikoari buruzko Lege Orokorren (urriaren 4ko 33/2011 Legea) VI. titulua, eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen (ekainaren 26ko 8/1997 Legea) 35. artikulutik 39. artikulura bitartekoak, bai eta COVID-19aren Pandemia Kudeatzeko Neurriei buruzko Legearen (ekainaren 24ko 2/2021 Legea) VI. titulua ere, edo, hala badagokio, Zigor Kodeko XVIII. tituluko agiri-faltsutasunagatiko delitua betetzeagatik ezarritakoak.

MASKARA ERABILTZEARI BURUZ

Noiz da derrigorrezkoa maskara erabiltzea?

Maskara nahitaez erabili beharko dute sei urtetik gorako pertsonak erabilera publikoko edozein espazio itxitan edo jendearentzat irekita dagoen edozein espaziotan.

Aire zabaleko espazioetan nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, baldin eta pertsonen artean betiere 1,5 metroko gutxieneko distantzia mantentzea ezinezkoa bada, bizikideen taldeen kasuan izan ezik. Ondorioz, maskara nahitaez erabili behar da hiri-eremu guztietan.

Maskara erabiltzea salbuetsita dago naturaguneetan, baldin eta bizikide ez diren beste pertsona batzuekin pilaketarik edo elkarterik gertatzen ez bada.

Era berean, aplikatzekoak izango dira maskarak ez erabiltzeko arrazoiak eta kasuak, betiere 13/2021 Errege Lege Dekretuaren lehenengo artikulua aldarazitako 2/2021 Legearen 6. artikuluan legez aurreikusitako eran. Kasu horietan, norbaiti eskatzen zaionean egiaztatu dezala maskara erabiltzetik salbuetsita dagoela, desgaitasun- edo mendekotasun-maila adierazten duen agiri baten bidez dokumentatu beharko du egoera hori, edo, bestela, horretarako egindako mediku-ziurtagiri baten bidez.

2. neurria, Osasuneko sailburuaren 2021eko urriaren 6ko Aginduaren eranskinekoa

Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduetan derrigorrezkoa da maskara erabiltzea?

Bai. Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetan, janariak edo edariak hartzeko unean soilik salbuesten da maskara erabiltzeko betebeharra. Bestela, uneoro erabili behar da, bai barnealdeetan, bai terrazetan.

Lehen esan bezala, maskararen derrigorrezko erabilera honako leku hauetan aplikatzen den neurri bat da: joko-establezimenduak, txokoak eta elkarte gastronomikoak, lonjak, gazte-lokalak eta antzekoak, eta diskotekak eta gaueko aisia-establezimenduak.

2. neurria, Osasuneko sailburuaren 2021eko urriaren 6ko Aginduaren eranskinekoa

Ken dezaket maskara kirola egiten ari naizen bitartean?

Edozein kirol-jarduera egiten denean, kasu hauetan salbuesten da maskararen erabilera: naturaguneetan, igerilekuetan (igeri egitean), taldeen arteko kirol-lehiaketetan (entrenamenduak barne) eta kanpoaldeko intentsitate handiko jarduera fisikoetan (aparteko uneetan).

Gainerako kirol-jardueretan (makina-aretoak, jarduera programatuak, ikastaroak eta abar) derrigorrezkoa da maskara erabiltzea jarduerak esparru itxietan egiten direnean (kiroldegia edo gimnasioak).

2. neurria, Osasuneko sailburuaren 2021eko urriaren 6ko Aginduaren eranskinekoa

Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea garraioa erabiltzen denean?

Derrigorrezkoa eta ezinbestekoa da 6 urtetik gorakoek maskara erabiltzea bidaiarientzako edozein garraiobide erabiltzen denean, bidaiari hasten denetik amaitzen den arte, salbuespen legalen kasuan izan ezik. Ez da derrigorrezkoa izango garraio pribatuan maskara erabiltzea bidaiariak etxebizitza berean bizi badira. Garraioko profesionalak jantzita eraman beharko du maskara zerbitzuak irauten duen bitartean, baldin eta bere lan-espazioa ez badago bidaiari-leku propio edo babes-manpara batez banatuta publikoarengandik.

2. neurria, Osasuneko sailburuaren 2021eko urriaren 6ko Aginduaren eranskinekoa

ERANTZUKIZUN SANITARIOKO NEURRIEI BURUZ

Zer prebentzio-jarrera izan behar dut?

Maskara erabiltzeaz gain, barnealdeak etengabe aireztatu behar dira, eta pertsonen arteko distantzia mantendu eta eskuak garbitu. Jende-pilaketak saihestu behar dira, eta txertaketan parte hartu, kontaktuen jarraipenean lagundu eta berrogeialdiak eta isolamenduak bete.

1. neurria, Osasuneko sailburuaren 2021eko urriaren 6ko Aginduaren eranskinekoa

Behartuta nago kontaktuen jarraipenean eta kutsatzeen trazabilitatean laguntzera?

Bai. Kutsatutako pertsonak eta haiekin kontaktua izan dutenak behartuta daude Euskadiko COVID-19aren kasuei eta kontaktuei buruzko zaintza-sarea arakatzen eta haren trazabilitatea egiten laguntzera. Bada web bidez eskuragarri dagoen formulario bat sintomarik duzun edo kontaktu estua izan zaren jakinarazteko.

Pertsona guztiek bete beharko dituzte osasun-arloko agintarien edo zerbitzuen jarraibideak, baita Osasun Sailarenak ere, indarrean dauden protokoloen arabera.

6. neurria, Osasuneko sailburuaren 2021eko urriaren 6ko Aginduaren eranskinekoa

EKITALDIEN ANTOLAMENDUA

Noiz utzi behar du bertan behera udal-erakunde batek ekitaldi edo jarduera bat bere herrian?

2021eko azaroaren 16ko Aginduak, Osasuneko sailburuarenak, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzioari buruzkoak, COVID-19 kutsatzeetan 14 eguneko tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gorakoa den udalerrietan, hartu beharreko neurrien bigarren atalean ezartzen du –beste administrazio publiko batzuen eskumenak eta haiek eskumen horiek baliatzean hartzen dituzten neurriak behar bezala errespetatuz udalerriak 100.000 biztanleko 150 kasu baino gehiagoko intzidentzia duen bitartean– jarduera guztiak bertan behera utzi edo aldi baterako atzeratu ahal izatea, horien esparrua edozein dela ere, baldin eta udal-agintariak aurreikusten badute ezin izango dela bermatu urriaren 6ko Aginduaren eranskinean aurreikusitako prebentzio-neurriak beteko direla.

Oinarrizko prebentzio-neurriak beteko direla (maskara erabiltzea bereziki) bermatzea oso zaila ikusten den ekitaldiak edo jarduerak hauek dira: janariak edo edariak hartuko direla aurreikusita dutenak.